

PuLunPe

158. Zenbakia

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA



Itziar Zabala, Larraintzarko **banatzailea**:



“Jendeak haien trasteak eta zerbitzuak elkartrukatzeko atal bat primeran egongo litzateke”,

Hemen bukatu eta eskolara”. Hala hasi zaigu Itziar kontatzen Flor de Vida landetxeko sofa goxo batean eserita geundela. Lizasoko landetxean “denetarik” egiten du, adibidez, gorputz jarrerara sendotzeko ikastaroak, “Reordenación postural”: “Gerendiaingo Amaiak eskaintzen ditu ikastaro hauek, eta jende asko etortzen da hona”.

Kasualitatea ote, egun horretan gure kazetaria sekulako lepoko mina zuen eta zenbait aholku eman dizkio: “Jarri zaitez paretaren kontra tenis pilota bat sorbaldan duzula eta mugitu zaitez”. Ikastaroari buruz gomendatu digu “ez dakizu zeinen ona den”. Goizean Lizason hasten du lan eguna baina gero eskolara joaten da, jantokira.

Bezeroak etorri dira landetxearen prezioei buruz galdetzeko eta bitartean gure elkarriketa jarraitu digu: “Aspaldi nabil aldizkaria banatzen; hori bai, duela urte batzuk hasi ziren Lan Babestukoak banaketa egiten eta denbora batez utzi nion egiteari

baina berriz bueltatu nintzen Purik komentatu zidako... Bost bat urte egingo ditu jada...”.

Larraintzar ez da gure eskualdeko herri txikiena: “Oso herri zabala da gurea eta udan aise banatzen duzu ordu batean guztia, baina hotza eta euria datozenean ez da hain samurra!”. Aldizkariari buruz hitz egiten hasi gara eta zera esan digu: “Euskara dakien jendeak gustura hartzen du Pulunpe baina besteek ez, ea beste bat erdaraz jartzen duten eskatzen dute baina nik hau da dagoena erantzuten diet...”

Aldizkaria “oso gustuko” du Itziarrek eta zenbait proposamen interesgarri luzatu dizkigu hobetze bidean: “Jendeak haien trasteak eta zerbitzuak elkartrukatzeko atal bat primeran egongo litzateke”, horretaz gain, beste ideia bat komentatu digu: “Gustatuko litzaidake pertsona zaharrek haien egunerokotasunari buruz hitz egitea... Gurean badaude zahar asko eta ziur mila kontu dituztela kontatzeko”.

PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA..

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzenoi, etab... Barkatu aipatu ez zaituztedanoi.

Emaila: pulunpe@gmail.com

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Sareko taldekideez gain, Txurdan.

Koordinatzaileak: Arantxa Puignau eta Iosu Martinez.

Tirada 1.600 ale.

Inprimategia: Gertu - Maketazioa: Iosu M.U

Lege gordailua: NA 721/93

2016KO ABENDUAREN 2AN INPRIMATEGIRA BIDALIA.

AMATXO JOAN DA

Amatxo joan da

Jada ez da etxean

Ez digu muxu gehiagorik

emango

Nire ama joan da

Non da nire ama?

Besarkada bat eman nahi

diot nik

Nire ama baita

Non da nire ama?

Nora joan da?

Nik nire ama maite dudala

Amatxo non zaude?

Non da nire ama? ...

Arbeiten olerkia eta artelana. Larraintzarko Gizarte Etxean ikusgai.

KULTUR AGENDA

-Erakusketak-Sin historia.Arbeitz (Beatriz Chivite) -
Abenduaren 23a arte egonen da.

-Abenduak 9-20.30-Arostegi-KONTZERTUA
:LEIDANS

Zatoz rock britaniar erritmoekin Iruñatik zatozen hirukote honekin musikaren doinuez disfrutatzea, sentitzea, amestea... Leire (bateria eta ahotsa), Dani Calazans (baxua eta ahotsa) eta Dani Ferrattes (guitarra eta ahotsa) eta bi Dani izango ditugu gurean. Guitarra, baxua eta bateriarekin.

-Abenduak 16-18.30-Arraitz-Gaztelera
"El hombre que empezó a correr" DOKUMENTALA

-Abenduak -17:00-Ziaurritz-Euskaraz
ARTEZ blai- InspirARTE
"Artez blai" familiend tailerra. Irudimena eta sormenaren hegala astinduz barruan duguna artearen bidez adieraziko dugu, koloreekin eta materiale

desberdinekin jolastuz.
*Arropa zaharrarekin etorri.



IA



Larraitzarko liburutegian komiki ikastaroa burutu zen eta hemen duzu lagin bat. Egindako beste marrazkiak ikusi nahi badituzu, sartu www.ametza.eus webgunean

ahötsa

AHOTSA.INFOK ZURE LAGUNTZA BEHAR DU!

"AHOTSA BEHAR BADUZU, AHOTSAK ERE BEHAR ZAITU. HEDABIDE LIBREA DIRA, BAINA INDEPENDENTZIAK BERE PREZIOA DU: HAIEN BURUAREN JABE IZAN BEHAR DUTE. HORREGATIK, PROIEKTU HONEN AKZIODUNA IZATEA PROPOSATZEN DIZUTE. URTEAN 60 EURO DIRA.
IDATZI ahotsasarea@gmail.com HELBIDERA"

ERREFUXIATUEN
EGOERARI
BURUZKO
ERAKUSKETA
APEZTEGIBERRIN
ABENDUAN



EROSI BRT ERRUGBI TALDEKO MATERIALA

POLO BRT URDINA 35€ BAZKIDEAK 30€

POLO BRT ARROXA 35€ BAZKIDEAK 30€



616 188 620-LINTZO

ELKARTASUN EGUNEKO BERTSOA

Nork ez du ama, aita, alaba
semea edo laguna.

Distantziaren bortizkeria,
ziegaren iluntasuna.

Elkarlanean lortuko dugu,
etxeratzeko eguna.

Basaburutik hedatuz ozen
gure txaloen oihartzuna.

Bihotz bakoitzera heldu dadin,
Gure indar eta elkartasuna.

Bake bidean duela bost urte
jarria zuten harria,

baina mendekua da estatuan
politikan oinarria.

Berdin familiak, eskubideak,
hala eritasun larriak.

Etxean daudela asetuko da
askatasun egarria,

lheslari eta presoen alde
Herriaren aldarria.

Indarkeria matxistaren aurka

Herritar konprometitu baten alde, emakumeenganako indarkeriaren aurka. Lelo honekin eta azaroaren 25a indarkeria matxistaren aurkako eguna izanik, ekin-tzez eta jardueraz betetako hilabete oso bat eskaini zaigu Berdintasun Zerbitzu-tik Basaburuko Udal eta Bilgune Feministaren laguntzarekin



Lehen ekitaldia Beatriz Chivite margolariak eskaini zigun. Berak azaldu zuen historian zehar emakume margolarien artelanak ikusezinak izan direla beti, eta dozena bat margolarik egindako artelan ederrak erakutsi zizkigun. Egia da emakumeek asko pintatu dutela mendeetan, eta pintatzen dutela oraingoan ere, nahiz eta haiek egindako lana ezkutatua eta ez aitortua izan.

Hurrengo ekitaldia honako izenburu hau zera-man: Genero ereduak apurtuz. Oihanzabal ikastetxeko Lehen Hezkuntzako bosgarren eta Larrain-tzarko seigarren mailako ikasleek, berdintasuna eta indarkeria lantzeko helburuz, antzezlan bana eskaini dute. Hau guztia prestatzeko aurretik hamar saio egin dituzte. 2012an hasi zen programa hau lantzen, eta urtez urte maila gora doala aitortu digu Josune Berdintasun teknikariak.

Ikastetxe batzuetan eduki hauek programa zabalago baten barnean biltzen dira, beste batzuetan ez da ezer lantzen. Haren esanetan, ideala litzateke Lehen Hezkuntzako bigarren, seigarren eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren mailan lantzea, hauek omen baitira gakoak.

Aurrekontuak hobeak izan dira aurten, hain zu-zen, eskualdean hirukoiztu egin dira. Orain arte programa honek aurrekontuen erdia eramaten zuen, baina egia da oso programa garrantzitsua dela, eta apustua ere oso handia. Haiek dira gure etorkizuna, eta horrelako programek eragin handia izaten dute gaztetxoengan, eta, bide batez, haien gurasoengan ere bai. Azkenik, aipatu gure eskualdeko bi ikastetxeetan berdintasunaren osasun maila aztertzen eta diagnosia egiten ari direla. Behin diagnosia amaituta, Ekintza Plana eginen dute.

Nagore dokumentala ikusteko parada izan zen Jauntsaratsen azaroaren 20an. Nagore Laffage gaztearen hilketa bortitza du ardatz dokumental honek. Jose Diego Yllanese hil zuen Nagore 2008ko sanferminetan.

Asun Casasola Nagoreren amak dokumentalean duen parte-hartzea oso garrantzitsua da; izan ere, berak darama istorioaren hari nagusia.

Biktimaren senide zein lagunen testigantzak jasotzen ditu lan honek, baita prozesu judizialean inplikaturako hainbat kideren ikuspegiak ere: besteak beste, fiskala, alde bietako abokatuak eta genero indarkeriaren kontrako kolektiboetako ordezkariak.

Eraso sexisten identifikazio eta autodefentsa tailerrak izan dira azaroan egin diren azken jarduerak. Eskualdeko festetan hainbat eraso izaten dira, askotan; tamalez, normaltzat hartu ditugu, eskualdea ttikia izanik eta bertan bizi garenak ezagunak, zaila suertatzen baita ezer salatzea. Hain zuzen, indarkeria mota hauek identifikatzea izan da jar-duera hauen helburua.

Tailerrak Emaginek bideratu ditu: Emagin dokumentazio eta ikerkuntza zentro feminista da. Euskal Herriko Bilgune Feministarekin elkarlanean, horrelako tailerrak eskaintzen ditu jendartea kontzientziatzeko eta bereziki emakumeak ahalduntzeko.

Tailer hauek amaituta, urte berrirako Bilgune batzar zabal bat egitea proposatzen du guzti honi jarraipen bat emateko. Eskualdean nahi duten andre guztiak bildu eta honen inguruan lasai eta goxo hitz egiteko. Ea honen inguruan hurrengo Pulunpen elkarriketa bat egiteko aukera dugun.



Rebeka Maestro, Emagin taldeko adituaren lau hitz. SEXUAREN ARABERAKO LANEN BANAKETA ETA, BESTETIK, BELDURRA...

Oihanzabal eskolan burutu zuten ikastarotxoak, eta Emagingo adituarekin hitz egin genuen horri buruz. "Gure testuinguruaren analisia egin genuen, parekidetasunari begira. Gure landa eremuan, azpimarragarriena bi gai izango lirarteke: bat sexuaren arabera lanen banaketa eta bestea beldurra".

Lanen desorekari begira jarritz, tailerrean aipatu zu-



Haurren aurkako indarkeria patriarkalaren inguruan

Askotan esan ohi da indarkeria patriarkalak milaka aurpegi eta milaka ahots izan ditzakeela, baina oraingoan ate atzean ezkutaturik gertatu eta geratu ohi diren biolentzia-egoera lazgarrien inguruan arituko gara: umeen kontrako indarkeria patriarkalaz. Haurren kontrako bortizkeria patriarkalak baditu dimentsio anitz: eraso fisikoak, psikologikoak, arduragabekeria fisikoa eta emozionala eta sexu-abusuak.



Iñigo Aranbarri, berdintasunean antzerkiko erantzulea:

Gure helburua ikasleak kontzienteago egitea da". Bosgarren urtea jarraian da Iñigo "Aranba" gipuzkoarra gurera hurbiltzen dela. Genero kontuak landu zituen Antropologia ikasketak egin

ten egoera azken hamarkadetan baino hobe bada ere, "oraindik badaude generoei lotutako lanak" eta, bestetik, "desberdin baloratzen direla" lan batzuk eta besteak. Bestalde, beldurra aipatu zuten, kalean eta esparru anitzetan, "emakumeok beldurra sentitzen dugu eta horren kudeaketari buruz hitz egin genuen. Motz geratu zitzaigun, tailerrak 8 ordukoak izan ohi dira eta horrek ere motz geratzen zaizkigu, genero irakurketak egiten, bizitzako erronkei buruz hitz egiten, zer ekartzen duen emakume izateak...

Oso aberasgarri, baina motz!" Landa eremuan zer testuinguru berezi aurkitzen den galderaren erantzunez, "tradizioa nagusi den ingurua" aipatu zigen Rebekak: "Halako eremuetan genero mandatuak ez jarraitzeak badakar zailtasun estra bat, hirietan halako gizarte sektore atzerakoa badago ere, bada-go aniztasun handiagoa". Dozena bat emakume bildu ziren, adin desberdinekoak eta euskaraz egin zen tailerra.

Indarkeria aldaera anitz horien zutabeak estuki lotuta daude patriarkatuaren baitako jendarteratze-prozesuei. Txikitatik, sozializazio-prozesuan, neskatoei edo mutikoei sexualitate, identitate, rol eta eredu estereotipatu hertsia ezartzen dizkie sistema heteropatriarkalak, betiere, jendartean sistemaren beharrak asetzeko leku eta funtzio ezberdinak har ditzaten.

Neskatoak printzesak, zaintzaileak, goxoak, gel-doak, objektuak izateko hazten ditugu; mutilak, aldiz, bizkorak, independenteak, ausartak, mugituak eta subjektuak izateko. Haurren eta nerabeen bizi-ibilbidea, alegia sozializazio-prozesua, hasieratik bortizkeria kultural eta sinbolikoak ezaugarritzen dute.

Bilgune Feministak bidalitako testua, irakurri osorik WWW.AMETZA.EUS webgunean.

zituenean, eta antzerkia ere landu. Urtero Ultzama eta Basaburuko eskoletan bi antzerki ikastaro eskaintzen ditu, eta gero jendaurrean aurkeztzen dute emaitza. "10 saio dira eta urteko 365 eguneko alderaketarekin beti zalantza geratzen zait zenbaterainoko eragina duen". Aurten ez da desberdin izan eta "oso gustura" egon dira, "berriro ere".

Galdetu genion ea bost urte hauetan aurrerapausoak sumatu dituen ikasleengan: "Askotan pentsatzen dut agente hezitzaileez harago, badaudela aktore asko beste norabidean doazena (Bideoklipak, sare sozialak, Disney Chanel, jostailuak...). Gure helburua, behintzat, ikasleak kontzienteago egitea da".



Primeran joan zen Onddoaren seigarrena

Balorazio oso ona egin dute antolatzaileek: ongi atera zen dena eta bertze urteetan baino jende gehiago etorri zen. Onddoaren eguna bera ere alde izan zuten, argitu zuenetik euritsua agertu baitzen, eta horrek jendea Larraintzarko frontoira bultzatu zuen zuzen zuzenean. Aurtengoa seigarrena izan da.



Larunbatean bisita gidatu antolatuak zituzten, eta komentatu digutenez, bertako jendeaz gain, urrutitik etorritako jendea azaldu zen: Madrilgo talde bat, Bartzelonatik, Zaragozatik ... baita Gipuzkoatik eta Bizkaitik ere.

Ondoren Javier Gomez mikologoak eman zuen hitzaldiak bertaratutakoak asebeste zituen. Hauxe zen hitzaldiaren izenburua: Jateko izateaz gain, zertarako balio dute onddo eta perretxikoek? Eta, bai, jateko izateaz gain, funtzio garrantzitsuak betetzen dituzte gure basoetan, bertzeak bertze garbitzaile lanak.

Gure zuhaitz gehienak hostogalkorrak izanik, udazkeneko hostoz betetzen dute lurra, eta onddo

eta perretxikoak arduratzen dira hauek deskonposatzen. Jangarrien artean ilarrak izan daiteke adibide on bat. Bertzetik, onddoak zuhaitzari lotuta bizi dira sustraien bitartez, eta onddo eta zuhaitzaren artean sinbiosia ematen da, azukreak, elikagaiak eta ura partekatuz. Oso garrantzitsuak dira basoan.

Igandea, erran bezala, primeran joan zen. Urtero bezala erakusketa handi bat izan zen lehen protagonista, eta haren inguruan saltzaile ezberdinak. Arrakasta izugarria izan omen zuen Julen Altelai pilotariak Ekotaloarekin, ez bakarrik ekologikoan lan egiten duelako, baita talo horiek onddoekin eta barazkiekin betetzen dituelako ere. Orokorrean saltzaile guztiak oso gustura

Ongi aireztatuak dauden gunek dituzte gustuko, hau dela eta ikusi da gizakiak sortutako estalpe, barrunbe edo aletegietan ere habia eraikitzen dutela. Habien morfologia esferikoa edo erronboidea da, marroi argi kolorekoa eta garapen maximoan 50 zentimetro zabal eta 80 zentimetro luzerakoak izan ohi dira. Habiak dituen gelaxkak adina liztor jaio daitezke urtean, eta 1.700 gelaxkarainoko habiak aurkitu dira.

Frantzian ohartu dira hainbat hegaztik gustuko dutela liztor asiar hau. Okil eta eskinoso moduko hegaztiak ikusi dira habiak garbitzen eta liztor asiarren larbak jaten.

Zer egin liztor asiarraren habia ikusiz gero?

- Ez zirikatu liztorrak
- Ez suntsitu habiak zure kabuz
- Udaltzaingoarekin harremanetan jarri eta habiaren kokapen zehatza eman.

Bai, baina...



Udaberrian eta udan, zuhaitzak hostoz josita daudenean, habiak ikustea oso zaila izaten da. Argazkian azaltzen den habi hau Arraitzen dago eta orain arte inork ez zuen ikusi. Hostoak erortzerakoan... hara!



Titikiena haur eskolako zozketa

Aurten ere egingo dugu Gabonetako zozketa Ttikienaren alde. Dakizuen bezala, proiektua aurrera ateratzeko, Basaburuko eta Imozko udalen laguntza dugu; baina, horrez gainera, Ttikienako familiok zenbait jarduera egiten ditugu urtean zehar proiekturako dirua biltzeko, eta Gabonetako zozketa da horietako bat.



Aurten, gainera, sari hobeak eta gehiago egongo dira. Txartela 1,50 eurotan salduko dugu. Eguberrietako loterian saritutako lehenengo lau zenbakien azken hiru zifrekin bat datozen txartelek jasoko dute saria, eta honako sari hauek izango dira:

1. saria: saski ederra + 2 pertsonarendako afaria Aizarozko ostatuan (beste produktu batzuen artean,

laguntzaile hauek emandakoak egongo dira saskian: Irurtzongo Futsalsakana kirol-denda (30 €-ko bonoa), Basakaitz Esnekiak, Irurtzongo Antsotenea izoztuen denda, Irurtzongo Galarza-Eroski, Jauntsarasko Leire Cabrero Farmazia, Insalas Gazta).

2. saria: 100 €-ko bonoa Irurtzongo Albaitaritzan erosteko + Juanbeltz gazta 1
3. saria: 2 pertsonarendako afaria Oroketako ostatuan + Dorrea gazta 1
4. saria: 2 pertsonarendako afaria Etxalekuko ostatuan

Saria jasotzeko epea 2017ko urtarrilaren 27ra arte izango da, eta aupattikiena@gmail.com helbidearen bidez edo 948503364 telefono-zenbakiaren bidez egin daiteke.

Txartelak erosteko, Ttikienako familiok arituko gara saltzen, eta Jauntsarasko Apeztegiberrin eta Etxalekuko ostatuan ere egongo dira eskuragarri.

TTIKIENA

Sendotzak Etxalekun



piroz, Etxalekuko *Ramonen Etxekoa*. Joana Irigoyen Arribillaga, Etxalekuko *Latarikoa*. Kepa Mariñelarena Rubio, Itsasoko *Goitiko Sukaldekoa*.

Ospakizuna: Ebangelioaren ondoren apezpiku jaunak Mendekoste egunean apostoluek izan zuten aldaketa berezia gogoratu ondoren, sendotza hartzea, beraien dako Mendekoste eguna zela azaldu zien.

Ospakizunak hiru zati izan zituzten:

- Lehendabizikoa: Bataioko Agindua berritzea.
- Bigarrena: apezpikuak bakoitzaren buru gainean eskuak ezartzea.
- Hirugarrena: igurtzea edo olio santuz gurutze bat egi-tea.

Gazte hauek eukaristian parte hartu zuten: irakurgaiak, herriaren otoitzak, eskaintzak egin zituzten. Bukatzean denak batera argazkiak egin zituzten.

Otamena eta apezpiku jauna:

Eukaristiaren ondoren otamena prestatu zuten. Eguraldi txarra zela eta elizaren barnean, korupean egin zen. Bildutako gazteek parte hartu zuten, apezpiku jauna ere denen artean zelarik. Guztiekin hitz egin zuen, denengana hurbildu zen beren agurra, galderak eta kezak entzuteko asmoz. Ordu bete pasatu zuen denekin lasai hizketan.

Denen ahotan hauxe entzuten zen: zein gizon xalo, umil, bihotz oneko, eliz artzain modelo den gizon hau!!.

MIGUEL MARIA IRIARTE

Uxue Fraile korrikalariarekin berriketan

Ikasturte hasieran kirol eskaintzen artean mendi korrikalari ikastaroa zegoen, eta gure sorpresa handia izan da entrenatzailearengana joan eta nazioartean izena duen andre bat aurkitu dugunean: Uxue Fraile. Txikitan maiz joaten zen gurasoekin mendira, atletismoan ere urte dezente eman zituen eta adinean aurrera joan ahala helburu gero eta zailagoak jarri dizkio bere buruari. Aitortu digunez ilusio berriak aurkitzea gero eta gehiago kostatzen zaio, baina aurkitu du bat izugarri motibatzen duena: Coloradon dagoen Hardrock ultratrailean parte hartzea. Zozketa horren zain dago.



Asier, Uxue, Bakartxo, Maialen eta Tomas.

Atletismoa egiten zenuen, gurasoekin mendira joaten zinen... nola izan da bilakaera?

Urteak pasatu dira, egia da euskaldunok ohitura handia izan dugula beti mendira joaten. Garai hartan orain ditugun aukerak, batez ere hirietan ditugun eskola kirolaren aukerak, ez genituen eta nik atletismoa egiten pasatu nuen hainbat urte. Ondoren hasi nintzen orientazio lasterketak egiten, lagun baten bitartez sartu nintzen mundu horretan, abenturako raidetara pasatu nintzen gero bost bat urtez. Ordurako booma zegoen mendiko lasterketetan puri-purian, probatu egin nuen eta harrapatuta geratu nintzen.

Harrapatuta erabat, badira urte batzuk horretan hasi zinela, ez?

Tira, ez pentsa, egia da egin nuen lehen lasterketa Anetoko ultratrailean 2010ean izan zela, baina orduan munduko raid txapelketarako prestatzen ari ginen, eta bitartean, lagun batekin egin nuen lasterketa hori. Nik beti esaten dut 2012. urtean sartu nintzela buru belarri: Zegama-Aizkorrin parte hartu nuen, Transvulcanian... eta ez dira hainbeste urte pasa.

Kontuan hartzekoa da gainera ez zinela hutsetik hasi.

Horixe, hamar urte nituela hasi nintzen, hogeita hamabi pasatu dira... tira, modu batera edo bestera hogeita hamabi urte hauetan ez dut atsedetik hartu.

Zein izan da egin duzun mendi lasterketarik lu-

zeena? Luzeena Reunion irlan izan zen, Diagonale des Fous delakoan, 100 milia ziren (milia batek 1.609,3 metro ditu), baina baldintzak zirela eta pixka bat luzatu zuten urte hartan; 34 ordu uste dut egon nintzela korrika eta oinez.

Hogei eta hamalau ordu lo egin gabe?

Bai, gauez hasi ginen, gaueko hamaiketan, beraz bi gau pasatu genituen.

Izugarria izan behar da hori.

2011ko Tasmaniako abentura raid mundu txapelketan zazpi egun inguru egon ginen etengabe. Honetan bizikleta, kayak, korrika ... espezialitate ezberdinak erabiltzen dira eta nik uste zazpi egun hauetan osotara zortzi ordu lo egin genuela. Horregatik diot banekiela zer zen gauak honela pasatzea.

Gorputzak ez du atsedena eskatzen oihuka?

Batez ere buruak. Egia da behartzen dugula, baina oraindik ez dakigu benetan gorputza zer emateko gai den, ez dugu ongi ezagutzen.

Amaitzeko, zer moduz hemen Larraintzarren?

Gustura nago, talde txikia daukagu oraingoz, pixkanaka ari gara. Jendea gustura dago. Gure adinetan ordutegiek ere asko mugatzen gaituzte, baditugu beharrak eta ardurak. Oraingoz asteen behin elkartzen gara, ostegunetan seietatik aurrera, eta gero plangintza bat prestatzen diet haien kontura egiteko asteen. Ea aurrera doan Ultzaman eta baita Nafarroan ere, gogoia ikusten da-eta.

Elkartasun egunaren laburpena

Bikain. Honela deskribatu digute Basaburuan antolatutako Elkartasun eguna. Denetarik izan eta egin zuten. Goizean pilota partidak, eta ondoren, bazkari espeziala sukaldari aritzen diren betikoen eskutik: banabarrak eta basurde gisatua. Eta, esan digutenez, kategorikoak atera omen zitzaizkien.

Bideoa www.ametza.eus webgunean ikusgai duzu



Elkartasun eguna BasaburuaHD

Baztango neska batek alaitu zien bazkalostea bere ahots eta gitarrarekin, eta ondoren Erkametz dantza taldea aritu zen.

Honen amaieran egunekeo ekitaldi nagusiari hasiera eman zioten: lipduba edo haiek egindako bideo musikatua. Honela da sekuentzia: bi segalari gazte belardi batean, preso eta iheslariak etxera dioen pankarta luze baten ondoan.

Kamerak handik kiroldegira salto egiten du eta Basaburuko dibertsitatea erakusten digu:

pilotariak, trontzalariak, Mexikortxo taldea, dantzariak, patinatzaileak, errugbilariak, judokak, txirrindulariak, trikitilariak...

Amaitzeko, eta kiroldegiko jende guztia pankartaren atzean duela, bertso bat kantatzen azaltzen zaigu Riki. Bejondeiola! Youtuben eta ametza.eus-en duzue ikusgai "Elkartasun eguna Basaburua" klikatuz.

Hortik aurrera, Mexikortxo taldeak jo zuen, afaltzeko bokatak prestatu zituzten eta gaua luzatu zuten Agerralde nekazinarekin.

Hirugarren pintxo lehiaketa Basaburuan

Azaroaren 12,13, 20 eta 21 egunetan Basaburuko 3. Ziza eta Onddo Pintxo txapelketa jokatu da. Guztira sei taberna aurkeztu dira lehiaketara: Udabeko benta, Apeztegiherria taberna eta Beruete, Aizarotz, Igoa eta Orokieta ostatuak.

Denetan ere pintxo bikainak prestatu dituzte baina guztietan baloratuena Igoako ostatuan prestatutakoa izan da. Igoarrek txapelketa

hiru aldiz irabazi dute dagoeneko. Oraingoz onddo budina egin dute gaztaina, piper eta pistatxo kremarekin lagunduta. Onddoak eta gaztainak Basaburuan bertan bilduak gainera! Taberna gehienetan 150 pintxotik gora eman dituzte bi asteburuetan, eta jendeak emandako botoen arabera aukeratu da irabazlea.

Igoakoaz gain pintxo ederrak izan dira besteak ere, oso origina-

lak eta goxo-goxoak denak. Gurean hain ohikoak diren onddoak arroz, haragi edo arrainarekin batera zerbitzatu dituzte edari fresko batekin lagunduta.

Ostalariak pozik agertu dira ibili den jende kopuruarekin eta gustura hartuko zaituztete berriz joanez gero. Ea herriz herri ibiltzeko ohi-tura indartzen den gurean, ostatu guztietan egoten baita zer jan eta edan!



Lizasoko **zubia** berreskuratu dute



Ultzamako bi aldeak lotzea” helburu duen zubia eraikia dago, jada. Betidanik egon omen zen Lizaso aldean bailara horretako bi aldeetako herriak lotzen zituen zubia, “pertsonendako eta garraioarendako ere”. Duela 60 bat urte, istorioek hala diote, idi pare bat pasatzen ari zela zubia puskatu eta ibaira erori ziren. Baina zubi horren histo-

ria beste egun batean kontatuko dugu, gaur albistea da obra bukatu dutela. Polita geratu da zubia, “tira, bere arazoekin baina, nahiko ongi geratu da” esan digute Ultzamako udal-letxean. “Baldintza zailenak CHEk jarri dizkigu, al- tuera eta zabalera handia eskatu baitigute. Ebroko Ur Konfederaziokoek azken 100 urtetako uholdeen informazioa eskatu zioten ingeniari-iei, eta datu ho- rien arabera eraiki behar zen zubia. “Biztanle askoren” eskaera zela esan digu Nika- sio Dorai zinegotziak, “udalak erabaki zuen egin behar zuela, eta orain martxan dago. Proiektu osoa denbora luze hartu du erabakia hartu bitartean, bai- na gero pare bat hilabetetan egin da, besteak beste, euri asko egin duelako”. Lan honen bidez, Ultzamako Udalak bailarako herri guztiak xenda bidez lotzeko egitasmoan aurre- rapauso bat eman du.

Imotz eta Basaburuko Gure Esku Dago **taldea** sortu da



Elkartea osatu da baina guzti hau sortu baino lehen es- kualdeko bi gazte elkartu ziren eta egoera baloratu zuten: “Nahiz eta gutxi izan eskualdean indarra izan dezakegula pentsatu genuen”. Mugitzen hasi eta aurkezpen mo-

duko bilkura bat antolatu zuten. “Larraungo plataformako bi lagun eta Nafarroako koordinatzailea hurbildu ziren gurera ekimena hobeki azaltzeko”. Aurkezpen bi- lera arrakastatsua izan zen, “jen- de pilo bat” hurbildu zen, nahiz eta batez ere Basaburuarrak izan gehienak. Gogora dezagun Gure Esku Dago ekimen herritar “ani- tza” dela, eta antolakuntzakoek diotenez, “herritarrak aktibatu nahi ditugu erabakitzeko eskubi- dea lortzeko”. Helburua da ekainean egingen den galdeketa prestatzea. Horra begi- ra zenbait pauso eman behar dira:

“Lehenik eta behin elkarte bat sortu dugu, kontu burokratikoak: Izenak jarri, sinadurak... Jadanik Nafarroako mendialdean halako elkarte bat dago “Larraun, Lei- tzaldea eta Goizuetako bailarak batzen dituen- a, baina guk orain- dik beste erritmo batera goaz eta gure kabuz arituko ginela erabaki genuen”. Elkartea sortzea lehenengo pau- soa izaki, “orain erronka nagusia da nola ailegatu jendearengana. Momentuz pentsatu dugu gaztee- kin gure eskura ditugun baliabide elektronikoak erabiliko ditugula, baina etx- ez etxe ere joango gara ekimena azaltzeko”.

Eraso, **errepide** baten zauriak

Berriki, auto batek aurretik eramanda hil da Sol. Errepide bazterrean zegoen bera, ohikoa zuen legez. Noiz edo noiz, errepide erdian ere pausatzeko ohitura zuen Solek. Bazirudien, hein batean, berak bere ardurapean hartuta zuela autoen abiadura mantsotzeko agindua. Baina, jakin ezazue Sol zakur bat besterik ez zela eta berriki auto batek aurretik eramanda hil egin dela. Erason gertatu da ezbeharra, Imotzen.



Sol zakurra zen, eta, zakurra etxerako maite du- tenek ederki dakiten bezala, animalia etxekotzat zuten Saioak, Gloriak eta Natxok. Izan ere, is- tripuaren berri izan bezain pronto, malkoak putzutu zitzaizkien begietan. Berehalakoan jabetu ziren Solek bizkar hezurra erditik zuela puskatuta eta ondorioz ezinezkoa izanen zitzaiola zakurrari zauri hura gaindi- tzea. Euren usterik okerre- na baieztatu zuen albaitariak. Erasoko errepidetik erdi bizirik irten arren, azkenean, Iruñean hil zen Sol. Sol izan da oraingoan Eraso erditik zatitzen duen errepide baten azken zauria, baina Erason bizi den gu- tako edonor izan daiteke hildakoa hauetako edozein egunetan. Are gehiago, ez da azken urteotan auto ba- tek aurretik eramanda hil egin den animalia bakarra. Katakumee- k eta zakurrek nekez egin dezakete aurrera Erason. Noski. Edozeinek pentsa lezake errepidea ez dela zakur baten tokia eta, hortaz, berarenak edota beren ja- bearenak direla afera honetan ardura guztiak. Alegia, zakurra lotuta izan balitz etxeko atarian ez geundekela orain albiste beltz baten aitzinean. Hots, auto gidari ba-

tek ez duela inoiz zakur bat errepide erdian aurkitu be- har, eta direnak direla baimendutako abiadurak, zaku- rrarena dela soilik eta bakarrik istripuaren sorburua. Ez. Hau ez da horrela. Gidariak aukera izan behar du errepide erdian aurkitu ahal dituenak saihesteko, kalteak eragin aurretik. Erasoko sarreretan gehieneko abiadura 50 kilometro orduko dela zehazten da. Auto- en abiadura txikitzeko xedeaz errepide erdian muinoa dago paratuta halaber. Baina, bistan da, ez da nahikoa. Azken buruan, errepidea du erdian Erasok; Eraso herri bizia da; Erason gazte eta zaharrak bizi dira; haurrak eta adinekoak bizi dira Erason; eta errepide baten zau- ria da Eraso erdian, iraganean karrika nagusia zenaren tokian. Erran nahi baita gidariak jakin behar duela Eraso zeharkatzen duen aldioro bizirik den herri bat zeharka- tzen ari dela eta, txikia den arren, edozein unetan egon daitekeela errepideko bazterrean ume bat baloiari os- tikoka, edo herriko gizonen bat menditik bueltan, edo emakumezkoen bat etxerako bidean; edo, autoen abia- dura mantsotzeko agindua bere ardurapean hartuta zuela zirudien Sol izeneko zakur maitagarria. DANI MARTIRENA



Maila altuko **turismoari** begira

Eskualdean dozena erdi hotel aurki daiteke. Haien egoerari buruz eta sektorearen etorkizunari buruz hitz egin dugu.



Argi dago Ultzama aldea ez dela Benidorm. Ez da ohikoa gurean igandeetan halako auto-ilarak aurkitzea, edota “lekurik ez” kartela ikustea gure herrietako landetxe eta hoteletan. Baina, turismoa, Galiziako meigak bezala, “egon badago”. Eta batzuetan sorpresa itzelak ematen ditu: gogora dezagun duela hilabete edo, Garra-poko elkartekoak “harrituta” geratu zirela onddo eta ziza bila etorri zen jendetzarekin. Halere, normalagoa da gurean txirrindulariak, bikote adinduak, familiak eta halakoak hurbiltzea. Ea profesionalak zer dioten.



“Natura eta lasaitasun turismoa eskaintzen dugu guk”.

2008ko udan ireki genuen Lanzko Iribarnia hotela. 10 gela eta lorategi handi bat ditugu, bakoitza desberdina. Bezeroendako bakarrik den jatetxe txiki bat dugu. Nafarroan 600 landetxe inguru zegoen, eta zerbait desberdina planteatzen genuen. Jesus nagusiarekin hitz egin dugu eta berak kontatu digu helburua “bezeroaren esku zerbitzu guztiak egotea” dela.

“Lantz herriak jendearengan duen esperientzia indartzen saiatzen gara; oso herri lasaia da Lantz eta errepidea bertan bukatzen da, ez dago trafikorik, eta natura eta lasaitasun turismoa eskaintzen dugu guk”.

Eskualdeak eskaintzen duena guztiondako berdina bada ere, negozio bakoitzak berea eskaini behar duela argi dago, gutxi gorabehera. Argi ere

badago halako negozio bat irekitzea apustu handia dela eta bizi dugun garai ekonomiko zailean, are gehiago.

Erreportaje honetarako irekirik dauden establezimenduekin hitz egin dugu, baina badago itxia dagoenik ere. Gogora dezagun Urritzolan ireki zen “El Mirador”: luxuzko proiektu bat, ireki eta urte gutxi batzuen buruan itxi zuten hotela. Bere garaian “hoteles con encanto” enpresako parte izan zen, baina orain Solvia higiezin-agentziak darma. Ezin izan dugu haiekin hitz egin.

Ostalaritzako negozio eredu desberdina dutenen artean, gurean Lizasoko Basoa “suites” azpimarratu behar da. Duela pare bat urteren ondoren, abentura ea zer moduz doan galdetu diogu Iñaki Irozi, enpresako koordinatzaileari: “Oso-oso pozik gaude, bete-beteta. Lau etxerekin hasi ginen eta orain bosgarrena eraiki dugu. Joan den uda oso ona izan da, eta udazkena ere primeran doa. Gure partetik okupazio tasak oso altuak dira, batez ere, denboraldi altuan.



Turismoa nola hobetu daitekeen galdetuta, zera erantzun digu: “Guri oso ideia ona iruditzen zaigu eraiki duten zubia. Guretzako oso ona da, modu horretan gure bezeroei paseo bideak asko zabaltzen zaizkie, horrela ez dute zertan autoa hartu”. Amati hariztitik Zenozko hariztira bisita egiteko edota Arañotz mendira igotzeko askoz hobe dago orain”.



Urteetan gorabeherak izan badituzte ere, Beruete Peruskenea irekia dago gaur egun. Honela deskribatzen da negozioa haien webgunean: Basaburua haranaren bihotzean, Nafarroako XVIII. mendeko baserri tipiko hau berritua izan da hotel xarmangarri bilakatzeko. Negozioa aurrera daraman Jose Mari XXXkin hitz egin dugu eta beraien eredia “ostatua eta jatetxea” eskaintzea dela esan digu. “Aurrera jarraitzen dugu, ez dugu albiste askorik”.

Basaburuan turismoari zer falta zaion galdetuta, barne turismoaren garrantzia aipatu digu: “Batetik, beharrezkoa da bailarako biztanleek gure zerbitzuak erabiltzea eta, bestetik, Udalaren laguntza; mugimendua eragiten dugu, eta alternatiba ekonomikoak ere sortzen ditugu. Batzuetan ez da erraza halako negozio bat aurrera eramatea eta aholkua eskatu diogu negozio bat irekiko lukeen pertsona bati emateko: “Oso ongi pentsatu behar da zertan eta non egiten den inbertsioa eta garrantzitsua da baliabide propioak erabiltzea”.

“Kalitatearen aldeko apustua egin genuen eta funtzionatu du”.

“Ultzamako Bentako Inmarekin hitz egin dugu: “1890. urtean eraiki zen etxea. Beti Goñi familiako emakumeek eraman dute aurrera lana. Felisaren aiton-amonak ziren negozioa ireki zutenak. Udalak bide eta errepideetatik zetorren jendea laguntzeko eskaintzen zuen etxea, eta hala hasi zen dena; hasieran abeltzaintza eta ostalaritza uztartzen zuen, eta, gero, azkenik, ostalaritza bakarrik”.

Urte luzeetako negozio oparoak aldaketa handia bizi izan zuen Belateko tunelak eraiki zirenean: “Oso gune estrategikoa zen eta tunelak noizbait egingo zirela bagenekien. Negozioa arriskuan zegoenez, Gorraizko gaztelua erosi genuen alternatiba gisa. Eta, asmatu genuen, egunero-egunero milaka auto pasatzetik bakararra ere ez pasatzera pasa ginen.

Goizetik gauera. Bentako egoera erraza ez bazen ere, gurearen alde apustu egitea pentsa-

tu genuen: geletan erreformak egitea, jatetxea zaintzea, bezeroak zaintzea... Kalitatearen aldeko apustua egin genuen eta funtzionatu du.

“Turismoari ez zaio oraindik garrantzia ematen”



Gure txangoa amaitzeko, Ultzamako Garxeniako Koxkorekin hitz egin dugu, eta komentatu digu zenbait apustu desberdin egin dituztela: “Bailaran Q kalitatea izan zuen lehen negozioa izan ginen, “Kalitate helmuga” zigilua ere badugu, Nafarroako Hotelen elkartekoak gara eta jatetxea “Slow food” mugimenduaren barruan dago.

Txomin eta Koxkok duela hamaika urte erosi zuten etxea eta geroztik lanean ari dira. Hauek ere kalitatearen aldeko apustu argia egiten dute: “Kalitateak prezio bat du, eskualdean erosten saiatzen gara eta ahalik eta naturalen”.

Turismo teknikaria da Koxko eta zenbait proposamen ditu eskualdeko bisitak hobetzeko: “Profesionalak faltan ditugu. Turismo teknikariak behar ditugu. Udalaren datuen arabera, gaur egun turismoak sostengu gehiago ematen die biztanleei abeltzaintzak baino, eta oraindik ez zaio garrantzia ematen. Kanpoko jendea bailarara erakarri behar dugu”.



Bosgarren Zozketa Mundiala

Aurten ere gure zozketa handiarekin heldu gara. Inoiz egin dugun handiena. Urtero bezala, aurrekoak baina hobe, beti hobetuz, hori da gure nahia. Eta berezitasun batzuk ere sartu ditugu. Munduan eta Mundialean ikasiz goaz.



Aurtengo berezitasunak

Iaz sari anitz banatu genuen, 107 hain zuzen. Aurten gehiago banatuko ditugu. Eta hobeak:

-Hasteko axuri edo bildots gehiago izanen dugu. Joan den urtean 5, aurten 10. Doblatu dugu. Axuri bikainak, ederki apainduta jasoko dituzte sarituek.

-Sari hobeak ematen ahalegindu ginen iaz. Zenbait gauza bateratu eta poltsatxo edo saskitto batean eman genituen (gazta taula, ezti...) Horrela produktuak banaka banatu beharrean, batera eman genituen. Sari bizkorragoak.

Aurten ere 30 saskitto banatuko ditugu baina oraindik gauza gehiagorekin. Hala ere Saskittoak izaten segitzen dute. Zer egingen dugu ba!



Landetxeak

Aurten lehenbiziko aldiz landetxeetan asteburu-
ren bat pasatzeko bi bono ditugu, 70 eurokoak. Arrarasko Albertak iaz, hala esan zigun: Ni prest nago zuei laguntzeko. Eta ideia horretatik segiz, aurten bi landetxek eskaini digute beren laguntza.



Flor de Vida landetxea



Kaño Etxea landetxea

Gaztagileak

Aurten 24 gazta izanen ditugu. Iaz 21 izan ziren. Aurten gaztagile bat gehiago dugu, Egozkueko Bernartenekoa hasi baitaigu gaztagintzan. Enpresari bezala zorte ona opa diogu Martari. Eta seguru gaude hala izanen dela, lehenagotik ere artzai bikainen ospea zerbaitengatik izanen dute!

Ostatuak

Eta zer esan bazkariez? Honetan ere saiatu gara ostatu gehiagotan ematen. Iaz 11 ostatutan eman genuen. Aurten 14etan emanen dira. Aurten lau ostatu dira beren bazkariak dohainik eskaini dizkigutenak: Ultzamako Benta, Larraintzarko eta Lanzko Ostatuak eta Udabeko Benta. Eskerrik beroenak lauei.



Lanzko ostatua



Ultzamako Benta



Udabeko Benta

Eskulangileak edo Artisauak

Aurten eskulangintza edo artisau opariak eskaintzerakoan aurrera pausu ederra eman dugu. Iaz hiru ziren eta aurten berriz sei. Sei eskulangileek beren oparitxo emanen digute, denera zortzi opari: Gehienek zura lantzen dute, baina bada besterik ere, zapatagile bat ere badugu eta.



ARTISAUAK:
Angel Beuntza
Martxelo Beloki
Ana Urteaga
Xabi Iturriotz
Juan Mari Gaskue
eta Pako Orbegozo (Irudian).

Zerriak

Eta zerrien zozketa deitu eta ezagunago den honetan, zer esan zerriez? Bai, beti bezala zerriak ere badira, iaz bezala, hamar. Bat ezkurtean hazia, Beruete mendietan. Eta beti bezala Antso-
neko bordan erosiko dugu. Aurten, hala ere, berezitasun bat sartu diogu honi. Zerri hiltzailerik ez baduzu, guk jarriko dizugu zerri hiltzaile bat, zure etxera joanen da zerri hiltzera. Hori bai, zure etxea gure zazpi udalerrri hauetako batean baldin bada. OHARRA.-Zerriak nahi ez duenari 200 euroko boleto bat oparituko diogu Auzako harategian nahi duena eros dezan. Ezkur zerriak, berriz, 300 euroko boletoa izanen luke. Hala egin izan dugu beti eta aurten ere hala izanen da.



Sari erauntsia

Bai, sari erauntsia izanen da. Iaz 107 sari ziren. Aurten 122 sari izatea ziurra da. Agian 125 izanen dira. Sari erauntsia, ea 2017. urteari hasiera on bat ematen diogun, bukaera hobea emateko. Guk behintzat hala nahi genuke. Ahaleginduko gara. Eginahalak eginen ditugu hala izan dadin.



Data aldatu dugu

Orain artio, zozketa eguna beti eguberri aurreko igandean egin izan dugu. Aurten ez da hala izanen. Han eta hemen egiten diren zozketa guztien atzetik egitea erabaki dugu eta, horrela, Errege eguneko hurrengo igandean izanen da Zozketa Mundiala, hau da, ilbeltzaren 8an arratsaldeko 4,30etan. Ilbeltzean izan dadila uzta! Zorte eta uztan on!



Hemen sari guztiak banatzen ditugu


Hemen ez da saririk banatu gabe uzten. Hau ez da beste sariketa anitz bezala. Hau nominala da eta berehala jakiten dugu sarituaren izena. Irratian entzuten da nor den saritua eta gero Pulunpen jartzen dugu.

Hala ere, zozketatu eta sariak atera ahala, telefonoz deitzen diegu saritu guztiei. Eta ezin izan badugu, saltzailearen bidez jartzen gara harremanetan eta bere etxera eramaten diogu saria.

Zu lasai, saritua baldin bazara, zuzenean jakinen duzu irradian edo gure webgunean. Eta egun batzuk beranduago Pulunpen agertuko dira saritu guztien izenak. Hemen dena argi eta garbi egiten dugu. Eta hala ere jakitea ezinezkoa bazaizu, zuri saldu dizunak esanen dizu.

Eta sariren bat banatzen ez bada, zerbaitengatik izanen da. Orain artio, lau urtez, bi sari ttiki gelditu zaizkigu banatu gabe. 500 bat sari banatu eta bi sari ttiki banatu gabe! Azkenekoa iaz. Bi bazkari egokitu zitzaizkion gizon bati eta hona etortzea ezinezkoa izan zuen: Espainiako Parlamentuko diputatu izendatu zuten eta Madrildik etortzeko ez zuen egokierarik topatu.

Bruselan edo Madrilen Diputatu izatekotan ez bazara behintzat, lasai, saria etxean jasoko duzu.



Eta beti bezala zuzenean.

Aurten ere zozketa ESAN ERRAN irradian ematen dugu, zuzenean. Ahaleginduko gara ahal bezain dotore eta atsegin egiten. Bazkal ondoren, goxo-goxo, etxeko lanak egin bidenabar edo egunkaria irakurri ahala, entzun dezakezu gure irrata patxada ederrean. Joan den urtean oso poliki aritu ziren Aitor eta Nora mikrofono aurrean, jolasa hitz eta pitz, sari ederrek banatuz. Txiste eta zirto, zerri gizenak banatuz! Aurtengo ekitaldirako ere espres deitu eta kontratatu ditugu. Esklusiban gainera. Ez dezakete huts egin eta guk gozatuko dugu. Eta, seguru gaude, zuek ere bai. Jarri irrata: 107,9 frekuentzian.

Inori opariren bat eman nahi diozu?

Aukera ederra duzu gure zozketan parte hartu eta norbaiti opari ederren bat emateko. Badi-tugu 20 txarteleko tako ttikiak. Eros ezazu tako horietako bat eta zerorrek bete ditzakezu txartelak. Txartel bakoitzean jarri norendako nahi duzun oparia, izena eta deitura, eta zozketan txartel hori ateratzen bada, sorpresa ederra hartuko du zure adiskide edo familiarrak. Ustekabe ederra hartuko duena!



Aurtengo beste ezaugarri bat

Aurten karteletan eta txarteletan jarri dugu gure Webgunea: www.ametza.eus Horrela, denek ikus ditzakete gure webgunean sarien zerrenda, zozketako berriak...eta zozketa egin eta biharamunean saritu guztien izen-deiturak.

Hemengo jendeendako, irratiak gain, PULUNPEN ere sarituen zerrenda osoa aterako dugu. Kanpoko jendeak, berriz, aski du gure webgunean sartzea: horrela ederki ikus dezake nor izan diren sarituak.

Zozketa hoberik egiten da gure alderdian? Nafarroako iparralde guztian?



Gaude Nafarroako Iparralde guztian ez dela zozketa hoberik egiten. Guk behintzat ez dugu ezagutzen. Zozketa berezia, jostaria, opariz ederki hornitua, bertako ekoizpenak (produktuak) ... gure komunitatea animatuz eta bultzatuz.

Horretan ahalegindu behar dugu, zozketa polita eta sinpatikoa egiten. Gure eskualde guztirako egiten den ekintza kultural bakarra, Pulunpe eta Irratiak gain, alegia. Zerbaitetan bederen elkarrekin, Irungo errepideak eta Donostiako karreterak hartzen dituen udalerrak, bat egiten dugu horrela.

Sari bereziak

Urtero izan dugu sari bereziren bat. Urtero izan da sorpresaren bat. Eta aurten ere izan dugu. Hobeki esan, izanen ditugu. Karteletan bi sorpresa edo bi sari berezi izanen ditugula jarri dugu, baina, beti bezala, esandako eta agindutakotik gora egiten dugu. Beti gehiago.

Aurten ere, hala izanen da. Bi sari berezi? Ez, hiru. Hiru sari berezi izanen dira:

Anton Iraizotz, Alkotz-Iruñeko zizelkari bikainak eskultura bat eskaini digu. Eskultura bat zozketan jartzen dugula lehen aldia izanen da. Esker mila Anton!

Eta Joxe Etxarrik ere azken hiru urteetan bezala makil berezi-berezi bat oparitu digu. Ikaragarri ederrek eta artistikoak dira honek egiten dituen makilak. Guk behintzat ederragorik ez dugu ezagutzen.

Eta hirugarren sari berezia, Angel Askuntzek emandakoa dugu. Oskotzen aspaldian bizi den arte-merkataria da. Eta honena sorpresa izanen da, ez baitakigu oraintxe bertan Angelek zer emanen digun. Gauza bikaina izanen dela besterik ez dakigu.

MILA ESKER GURE ARTISTEI.



Txerri hiltzearen xarma

Txerri hiltzeak xarma berezia zuen garai batean. Urte guztirako haragia, ia-ia beste haragirik ez baitzen jaten, oilo edo ardiren bat ez bazen. Batez ere gerra ondoan. Eta etxe guztietan hiltzen ziren bat, bi edo hiru txerri, familiaren arabera; etxean bizi zen jendearen arabera batzuetan; jende gutxi bizi bazen bat, jende asko bizi bazen hiru. Okerrago izaten zen etxe oso pobreetan, horietan diruak agintzen baitzuen. Oso probeek bat ere ez.



oinarrian. Antonio Larraiotzekin egon gora bere etxe berrian. Etxeko jardinean aritu gara jolasean.

Non ikasi zenuen zuk txerri hiltzen?

Etxean, aitarekin. Bihotzekoa eman zion eta, orduan, ni hasi nintzen. Nik ere, aita bezala, etxerako soilik egiten nuen. Arraitzen Antonio Etxenike zena ibiltzen zen etxe gehienetan lan honetan. Arraitzen eta baita Alkotzen ere.

Lagunarteko txerri hiltzea.

Orain adiskide kuadrilla batek ere egiten dugu txerri hiltzea. Iaz bi txerri hil genituen. Eguna, ederki pasatzeko. Txerria hil, ederki gosalduta, eta txerri horren puskak direla eta, beste bi edo hiru otordu egiten ditugu denak batean, elkarrekin gutako norbaiten etxean bilduta. Etxez aldatuz joaten gara.

Eta odolkiak, txistorrak eta dena egiten duzue?

Txistorrak harakindegian egiten dizkigute, baina aurten hori ere gerok egingen dugu. Lan puxka bada baina...bai, bai, hori dugu pentsatua. Dena gero artean egingen dugu.

Antonio, jendeak dioenez, gaur egun urdaiazpikoak ongi kontserbatzea zailagoa omen da. Zergatik da hori?

Nik ez dakit zergatik. Ez du lehen adinako hotzik egiten, klima aldatu da eta hori izan liteke. Gero, etxeetan, zirrikitu aunditz izaten zen, sabaletan haizeak korritzen zuen. Orain berriz, dena hertsieratsia izaten dugu, leiho, ate, teilatu. Denengatik izanen da.

Beste jolasbide batzuetan aritu ondoren, agur esan behar izan diogu Antoniori, Arraizko gizon prestu honi. Izan ongi.

GOIZERO-GOIZERO. ENTZUN ESAN ERRAN IRRATIAN
"EGÜNERO" IRRATSAIOA.



GOGORATV. 107.9 FM

Zozketan beren laguntza eskaini digutenak

ENPRESA HANDIAK

Orain bost urte enpresa handietara jo genuen laguntza bila. Baita erdietsi ere! Harrera bikaina egin ziguten; gure ekimena gustatu zitzaizkien denei.

Eta guzti guztiek prest azaldu ziren beren produktuak eskaintzeko. Aurten da bosgarren urtea eta gurekin segitu dute. Esker mila guztiei.

Bosgarren edizioa dugu eta aurten zeharka bederen gurekin erlazio duten kanpoko bi enpresei eskatu diegu laguntza. Hemengo esnearekin lan egiten baitute. Eta horietatik LACTURALE prest azaldu zaigu laguntza emateko. Saskittoa bizkortuko ditugu. Produktu gehiago izanen dira bertan.

GOSHUA
POSTRES TRADICIONALES DE ULTZAMA
GAZTANDEGIA DORREA
GRUPO BEL
LACTURALE



ENPRESA TTIKIAK

Bigarren eta hirugarren urtean beste enpresa batzuk ere gogo eta gustu handiz hartu dute parte gure Zozketan.

Nork zekien pate egilerik bazela Ultzaman? Bai, bai, EDALUR du izena eta Ultzamako Poligonoan dago pate egile hau. Bitxiago egin zitzaigun lurrin egile bat bazela jakitea! Bai, lurrin edo usain gozo egile bat dugu Ultzaman, AURUM. Eta sagardotegiak ere baditugu eta Berueteko BEHE-TXONEAK aurten ere bere laguntza eskaini digu.

EDALUR
AURUM
BEHETXONEA SAGARDOTEGIA



DENDA ETA HARATEGIAK

Eta denda eta harategietan, hona hemen hasiera hasieratik parte hartu duten biak. Txartel saltzen lagundu digute eta beren erosketa-bonoak eskaini dizkigute. Elkar lagunduz egiten omen da herria eta gu horretan ari gara: APEZTEGIBERRIA, JAUNTSARATSEN eta, AUZAKO HARATEGIA

ILE APAINDEDIAK

Ile apaindegiak ere bere ahalegintxoak egin dute. Orain hiru urte eskatu genien eta duda izpirik gabe berena eman digute.

Hona hemen beren eskuzabaltasuna erakutsi digutenak: CRISTINA GONZALEZ, AIZAROSKOA JOSUNE RIPALDA, ARRARASKOA RAKEL, LIZASOKOA ANA EGOZKUE, OLAGUEKOA

POSTREGILEA

Aho gozagarri postrea nahi eta lilarregin topatu genuen postregile bikaina. "Bai, bai, nik nire partetik egingen dut zer edo zer" Eta Mentxu Pikabeak bi tarta eskaini zizkigun orain bost urte. Geroztik urtero-urtero izan ditugu bere opariak eta, aurtan ere bi tarta izanen ditugu. Esker aunditz, Mentxu!



Mentxu



Kris



Josune



Rakel

Txerriak **ugaldera** salto

Igoarra. Miel Martikorena Lasarte dugu Salbadoren bordako nagusia. Nekazaria eta mendi-mutila. Orain jubilatutik, baina geldirik ez duzu ikusiko. Deus egin gabe nola bizi? Miel horrelakoa dugu. Urte askoz txerri hiltzailea ere izan dugu Igoa aldean.



rekin hasi nintzen txerri hiltzen. Hark erakutsi zidan.

Non hil zenuen lehenbizikoa?

Bai to, nola oroitu? Baaaa, aurki ere Orokieta Olan. Ramonen etxean. (Telletxeatarrak) Beti Igoan eta Orokieta Olan ibili izan naiz.

Gertaera xelebreren bat gertatu izanen zaizu ba hainbeste urtez lanean ari eta, labana hautsi edo... nik zer dakit ba?

Bai, bai, Igoako Errotan behin txerria eskapatu zitzaigun. Eta errekaraino joan zen labana sartuta ondoren.

Eta nola moldatu zineten?

Errekara lasterka jendea, harrapatu eta ekarri. Berriz ez zigun alde egin ez! Lekzioa ikasi guk orduan. Bueno, hiltzailea Miel, errotako nagusia zen. Ni, eusten beste batzuekin. Eustaleok izan genuen kulpa eskapatu egin zitzaigun eta, labana sartu ondoren.

Zu aspaldi ari zara txerri hiltzen.

Bai, bai, urteetan!

Zure aurretik nor izaten zen?

Arrarasko tabernako Miel (Mariezkurrena) Bai, ha-

Salbadoren bordan askotan izan gara eta harrera bikaina egiten digute beti Mielek, Perikok eta gaine-rako guztiek, eta batez ere Enkarnak. Izan dezagula urte askotarako elkar ikusteko auke-ra. Ea osasun onak irauten digun!



Igoako errotako ur zurrumbiloa



Errota azpiko aldetik begiratuta

Eusebio Zilbeti Erbiti, Aritzuko Beltran

Gaur Anue aldeko kontuekin heldu gara. Goyo Urdanitz dugu Aritzun adiskide, Luxeneko semea eta Iruñean bizi dena. Iruñean bizi eta bihotza Aritzun, ahal duen guztietan bertan izaten baita. Betitik ezagutu dugun artzaikoa galtzen ari dela eta horrela erran zidan behin: zergatik ez dugu PULUNPEN artzai kontuz zerbait egiten?



Sallesturren arte horretan. Zu oroitu zara horretaz, ezta?

Bai, borda bat Kintoako muga. Eta txabola ez dakit non zen. Sorolux eta Estaduko lurren hurbilean. Hori Baztango gelditu zen Anuek ere bere partea behar zuen, hor baitziren hemengo txabolak, baina ...
Eta Urrabian bertze borda erdi bat genuen. Bertze erdia ez dakit norena zen. Eskriturretan hor dago, borda erdi bat Urrabian. Hau Anuekoan dago.

Beraz, bi borda zenituzten: Bat Sallesturren eta bertzea Urrabian.

Bai, hala da, bi borda, biak Anuekoan.

Udaleko mendia nola zegoen antolatua? Herri batzuk toki batera, bertze batzuk bertze, nola zegoen antolatua?

Bakoitzak txabola zuen tokian izaten zuen artaldea. Gutxi gora-behera, Anueko herri bakoitzeko artzaiek non zituzten txabola edo borda horiek gogoan ditu Eusebiok.

Artzai lana

Urte guztian barna, zer lan egiten zenuten artzaikoan? Adibidez, neguan, udaberrian, udan, udazkenean?

Neguan, sasiak hautsi, soro eta alor bazterrek garbitu, aziendari jatea eman... Udaberrian, ardiak deitzi, axuriak kendu ondoren, Sanferminak artio edo.

Zu ttikia zinenean, ardi esnearekin zer egiten zenuten?

Gazta, etxean. Ama, arrebak... eta ni ere bai batzuetan aritzen nintzen. Tximitxean matoia sartu eta zapatzen, gazura guztia kendu artio. Ondoren esnea saltzen hasi ginen.

Zendeena ere egiten zenuten?

Bai, bai. Urte aunditzez Iruñera eramaten genuen saltzera. Behi esnea biltzera etortzen zen kamioiak eramaten zuen eta Iruñean dendetan saldu.

Eta gaztanbera?

Ez, gaztanbera etxean jaten genuen.

Eta ardi moztea noiz egiten zenuten?

Santiagotan gutxi gora behera. Hor nonbait. Herriko artzaiek elkarlanean, auzalanean bezala egiten genuen.



Gorrontzeneko Mariarekin

Zenbat artzai zineten herrian?

Artaldea bazuten Luxenean, Mitxelenean, Juangoxenean, Uztarrin, Erramonean ere bai, Unindonean eta Beltranean. Zazpi etxeetan behintzat bai.

Eta udako lanak?

Belarra, ultziak eta... lizarrak moztu eta...

Eta udazkenean zer egiten zenuten?

Patata bildu, artoa, gaztainak, iratzea egin behi, zeri, ardi... denentzat.

Orbela ere bilduko zenuten?

Bai, baina iratzea aunditzez ere gehiago. Hemen irelarre handiak dira eta iratzea handia egiten da. 20-30 iratze meta egiten genuen.

Artziaen burua

Zuek, artzaiok, izanen zenuten zeroien artean bakarren bat artzai ona eta jakintsua zelakoz edo, halako miresmen bat zeniotena.

Bai, Bernart, Egozkueko Bernartenekoa, Migel; artzaiekin errege. Hona, Aritzura, aunditz etortzen zen, Juangoxenera eta. Ardiak moztara ere bai. Artalde bikaina izaten zuen. Eta Aritzun, artalde bikaina Saralegik, Lantza joan zenak. Artalde ona zuelakoz ezaguna omen.

Toki onak non ziren hemen, bai herrikoan eta bai Anuekoan?

Garaiazen arabera. Neguan behitiko mendietan, herrikoan; eta udan, gotikoetan: Iturrondo, Xorolux, Xuriain, Okolin... Saioa. Honetan gutxi. Hala ere, gureak orain ere Saioan eta Okolinen ibiltzen dira. Pista franko poliki dago eta autoz joaten naiz.

Artzaiekin eta herrien arteko harremanak

Eta zuen artean izaten ziren haserreak? Larreak zirela eta?

Beti zerbait izaten da. Gogoan dudana, inportanteena, Lanzkoak Olaguekoekin ibiltzen zuten borroka da. Olaguekoak Lantzen barna eraman behar izaten zituzten Anueko larreetara, Okolina, eta lantzarrek ez nahi izaten. Haserreak sortzen ziren. Eta, tori! gero Lanzkoak Anuekoan sartzen ardiak. Horrela, batek bertzeari zakurrak axarazi eta.

Behin Lanzko Matxikonekoak bere artaldearekin Anuekoan barna, eta gure osabak aurre egin zion eta bere artaldearekin itzularazi. Horrela izaten ziren kontuak, baina gehienetan armonia ederrean. Adiskidetasunean.

Hemen, herrien artean, harremanak onak izaten al ziren? Olaguekoekin eta?

Bai, bai, Olaguekoekin ongi. Lanzkoekin ibiltzen ziren bestetan eta, haserreturik. Etzerakoan, argia kentzen ziguten edo langak hautsi, horrelako barrabaskeria batzuk. Herrietako kontuak. Bertzalde, jende noblea zen Lanzkoa.

Non izaten ziren bestarik hoberenak?

Bat erratekotan, Egozkue, egun franko egiten zuten. Kantu bat bada:
"Aritzu pa limpieza
Olague pa industrial
Y para chicas bonitas
La Villa de Lantz".

Horrela kantatu digu Eusebiok, eta honekin bukatu digu gaurkoa.



-ARTZAIA: Batuan artzaina da.
-ARTZAIKOA: Artzaingoa batuan.
-TXIMITXA EDO ZIMITZA: Gazta egiteko molde. Molde horretan sartzen da matoia eta gazura kentzen zaio.
-MATOIA: Gazta egiteko esne gatzatua (solidifikatua)
-GAZURA: Suero.

-ZENDEENA EDO ZENDERENA: Requesón.
-GAZTANBERA: Cuajada. Iparralde eta Nafarroan horrela deitzen zaio. Bizkaian gatzatua eta Gipuzkoa mamia. Denetan teknikoena gaztanbera dugu noski, baina indarra galtzen ari da. Zergatik?
-IRATZEA: Iratortza, ira, garoa.





Balentria ala **erokeria** Tolosan?

Kañamarek eta Jauregik aizkora eta korrika apustua irabazi zuten 21 segundo eskaseko tartearekin.

Apustuak denetarik zuen. Bi baten kontra, gazteak zaharragoaren kontra, aizkora eta korrika, diru kopuru deigarria, Tolosako zezen plaza beteta eta, zerbait gehiago behar bazen emozioa pizteko, bukaera ikaragarria. Hiru kirolariek haien gorputzak mugaraino eraman zituzten apustua irabazteko. Aroztegiko Julen Kañamaresek komentatu zigun bukaeran "ez nuen jendea ikusten ere".



Azaroaren 20a, Tolosako zezen plaza leporaino beteta hiru gizonen apustua ikusteko. Parte-hartzaileek 54 ontzako 20 enbor moztu eta 20 kilometro korrika egin behar izan zuten. Zezen plaza-ri 200 bira lasterka eman. Bikotearen kasuan, erdia bakoitzak.

Kañamaresek eta Jauregik 2 ordu 12 minutu eta 33 segundo behar izan zituzten zeregin horiek egiteko, eta Arriak 21 segundo gehiago, besterik ez. Azken unera arte lehia estua izan zen.

Julen Kañamaresek azken kilometroak egin zituen korrika, eta hala esan zigun: "Gero eta algara gehiago entzuten nuen plazan, eta azkeneko bi kilometroak erokeria izan ziren... hasi nintzen pentsatzen ez nintzela ailegatuko edo mareatuko nintzela... presio ikaragarria izan zen. Bukatu nuenean ez nuen sinesten, beste planeta batean nengoan". Lasaiago zegoen gurekin hitz egin zuenean, nahiz eta eskuan "aberia" polita izan, apustua odoletan bukatu baitzuen, "baina bestela ongi" esan zigun.

16.000 € zeuden jokoan eta "behar" den moduan

egin zen apustua. Tolosako Cantabrico tabernan sinatu, bertan diru-seinalea utzi, tabernakoek gorde eta apustua baino aste batzuk lehenago bakoitzaren zatia jarri. Halakoetan, normalean, dirua koadrila eta herrikoen artean jarri ohi dute, kirolaria laguntzeko.

Halako apustuei buruz entzuterakoan aspaldiko apustu basatiak datorkigu batzuetan burura, ea me-rezi duen gorputza hainbeste behartzea... Halere esan beharra dago gaur egungo apustulari hauek sekulako kirolariak direla. Kañamaresek esan zigun prestaketa serio-serioa egin zutela eta Arria V.ak komentatzen zuen apustua itxi zenetik pasa diren "hilabete hauetan lehertzeraino aritu naiz. Oso-oso gogorra izan da, baina jada igandea iristeko gogotsu nago. Ondo ikusten dut nire burua, eta jokatzeko gogo daukat".

Apustuaren ondoren, Xabier Orbegoza, Arria V.arekin hitz egin genuen, eta onartzen zuen orain denbora bat beharko duela berreskuratzeke. 21 segundo eskasengatik galtzeaz galdetu genion eta bukatu ondoren "horri ez zaizkio buelta gehiago eman behar" esan zigun.

SILBESTRE DEUNA XXIV. HERRI LASTERKETA

MAILAK ETA ORDUTEGIAK: IZENA EMAN ETA DORSALA HARTU: **LIZASON**

6-7 URTE- 17H30- 400MTO.	HELDUAK- 19H: 5€
	2 AUKERA:
8-9 URTE- 17H35-600MTO.	A) LIZASO-LIZASO: 8 KM.
	B) IRAIZOTZ-LIZASO: 4 KM.
10-11 URTE- 17H40 -800MTO.	
12-15 URTE- 18H-1.5KM.	

KAMISETA BAT OPARI PARTE HARTZAILEENDAKO

Heldu arnasari!



Izenburu hau dauka Odietako gida-liburuxkak, "oraindik galdu ez den arnas arrasto horri heltzeko, nolabait, eta soka horretatik tiratzen segitzeko: hori da gure desioa". Hauek dira Anotzibarko Iñigo Ibarrenaren hitzak, liburuxkaren egile nagusia. Berak azaldu digu nola egin duften.

Bertako euskara berreskuratzea, hori izan da zuen helburua?

Bai, garai batean erabiltzen ziren hitzak eta aditz batzuk berreskuratzea, gure egungo euskara baturari txertatu ahal izateko baliabideak ematea liburuxka honen bitartez. Gustagarriago izan dadin komiki-marrazki batzuk ere baditu.

Gainera zuk egin dituzu marrazki horiek, ezta?

Bai, beti gustatu zaizkit komikiak, oso zalea naiz, txikitik marrazten nituen eta ordudanik ez nituen egiten. Iaz hasi nintzen pixka bat probatzen eta pentsatu nuen: egin behar ditut. Ez dira profesionalak baina tira.

Nola egituratu duzue gida-liburuxka hau?

Hiru atal dauzka, lehendabizikoak azaltzen ditu testu batekin Odietako euskalkiak dituen bereizgarritasunak, honetarako Koldo Artola euskaltzainak testu bat prestatu digu. Koldo Artola 1983. urte inguruan Odieta, Atetz, Ultzaman barrena, Erronkari..., tira, leku askotan ibili zen, informatzaileak elkarrizketatu zituen, lan handia egin zuen garai hartan eta, berari esker, euskara galdu den toki askotan ezaugarriak, hitzak eta abar dokumentatuta utzi zituen. Berari deitu nion ea prestatuko zigun testutxo bat, eta prestutasun osoz baiezkota eman zigun. Bigarren atalari dagokionez, berak egindako lanetatik hitzak hartu ditugu, ziurrenik atal atseginena izan daiteke, komiki itxurako atala. Adibidez, txikitu edo hautsi hemen adarrikatu esaten zen edo doministiku egitea ba atije egitea, hau ere Imotzen erabiltzen da, usaina adibidez, urrine ...

Odietakoak dira hitz horiek?

Ingurukoak, Odietako euskalkiak Olaitz ingurukoa

hartzen zuen, Anueko eta Atezkoekin ere antzekotasun handia du, ziurrenik hemen erabiltzen ziren hitzak beste hauetan ere erabiliko ziren eta erabiliko dira oraindik. Ultzama hain hurbil egonik antzekotasun ugariak ere baditu, hitz asko konpartituak dira zalantzarik gabe.

Eta hirugarren atala?

Igual liburuxkaren zatirik pisuena. Aditzak dira, zein ezaugarri dituzten bertako euskalkiko aditzek. Hor esan beharra dago Gaskuetik harantzago aditzek Atetzekin antzekotasun gehiago dutela eta Latasatik honanzkoak Olaitz, Sorauren eta herri horiekin. Bietatik hartu ditugu eta, horretarako, Iñaki Gamindek 1985. urtean Nafarroako hizkerak bildu zituen liburuxka erabili dugu.

Pozaz esaten ahal dugu oraindik geratzen zaizkigula bertako euskaldun batzuk; dozena erdi bat behinik behin badira, eta haiei galdezka ibili gara. Polita izan da ibilera.

Lana osatu, marrazkiak egin, maketazioa egin ... polita baina lan handia, ezta?

Bai, bai, lan xumea da baina ustez baino neketuagoa. Batetik bestera ibiltzea tokatu zait, tira, pentsatzen dut horretan dabilen edonori tokatuko zaiola.

Zenbat ale prestatuko dituzue?

Berrehun bat ale izanen dira. Odietan ehun eta berrogeita hamar etxe dira, etxez etxe banatuko ditugu eta udaletxean izanen dira ale batzuk inork nahi izatekotan eskuratzeko. Aipatu behar da Odietako udalaren laguntzarik gabe ezinezkoa litzatekeela lan hau aurrera ateratzea, kostuak bere gain hartu dituelako eta haien lana ere eskertu behar da.

Orokietako ostatutik **ihesi?**

Non eta Basaburuan irekiko da abendu honetan estatuko lehenbiziko “Rural escape room”. Honek bertakoendako nahiz bisitatzen gaituztenendako aisialdi aukera ederra ekarriko du. Askok zer demontre den hori galdetuko duzue, bada horixe da hemen azaldu nahi dizueguna.



Zaila da misterioz jositako etxe batetik argazki bat ateratzea, baina lortu dugu jolasaren sorkuntzan egindako irudi hau. Zer esan nahiko du?

Escape roomak edo ihesaldi aretoak hirietan barra-barra zabaltzen ari diren jolasak dira. 2-5 lagunendako modukoak gehienak. Parte-hartzaileek, denbora mugatuan, ordu bat normalean, istorio batean girotutako gela batetik ateratzea lortu behar dute. Horretarako, zentzumen guztiak beharko dituzte eta ikerketa lan ezin dibertigarriagoa egin beharko dute.

Adin guztiendako gomendagarria, haurrek 8 urtetik aurrera aterako diote probetxua, txikiagoak direnek, ordea, egon, egon daitezke baina agian ez dute behar bezala jolasaz gozatuko. Beti ere, 16 urtetik beherakoek helduekin batera sartu beharko dute. Talde motari dagokionez ere, asko eta oso heterogeneoak dira horrelako jolasetara lotzen direnak, lagun koadrilak, familiak, lankideak, ikastaro kideak, eta abar.....

Gurean izango duguna Ernaizu kooperatibaren eskutik dator, Jauntsaratsen dagoen Apeztegi-berriko denda kudeatzen duen kooperatiba, hain zuzen ere. Beraiek kontatu digutenez, jolas mota honen berri izan zutenetik, landa eremuetara ekartzeko moduko aisialdi aukera bezala ikusi zuten. Ideia eta gaia buruan zebilkiten baina ez zuten toki apropos bat topatzen. Orokietako ostatua kudeatzeko lehiaketara inor ez zela aurkeztu jakin zutenean pena handia eman zien, herri ederra baita eta ostatuak mugimendua eta bizitza ekartzen baitu. Horrelaxe, bada, bi ideiak lotu zituzten bata bestea-

ri errentagarri izaten lagunduko dion itxaropenez, kontzejuari proposamen bat egin zioten. Erantzun positiboa jaso zuten: “Oso pozik gaude kontzejuak izan duen jarrerarekin eta eskertzen diegu” horrelako ekimen batera ireki izana. Proiektuaren errentagarritasunari begira goiko etxebizitzan pentsio txiki bat zabaltzeko tramiteetan ari dira eta kontzejuak hau ere begi onez ikusten du.

“Izena duenak badu izana”,
Gure mitologiari lotuta dagoen esaldiak ematen dio izena jolasari; beraz, susmatu dezakegu zein izango den misterioz eta dibertsioz blai dagoen istorio honen gaia. Ordu betez, gure eguneroko trebetasun arruntez gozatzeko aukera ematen du. Dedukzio gaitasuna, talde lana, intuizioa eta umore ona dira enigma argitu eta gelatik garaiz ateratzen lagunduko digutenak.

Lau hilabete trinko behar izan dituzte jokoak sortu eta martxan jartzeko, Gazteizko Sala Enigma enpresaren laguntzaz. Bestelako laguntzaile asko ere izan dituzte eta denei ere eskerrak eman nahi dizkiete. “Proiektu honetara hurbildu diren guztiak ilusioz kutsatu dira... indar eta bizi propioa duen proiektua da, jendeak gogo handia du jokoaz gozatzeko!!”

Momentuz erreserbetarako telefonoz deitu behar zaie edo whasapa bidali; aurrerago, ordea, webgunearen bidez egin ahal izango da.

Gureak dira oihanak (6)



Aurreko Pulunpen aipatzen genuen Orokietako haritz landaketa. Harrigarria egin zitzaigun alkateak kontatu zigun historia. Zuei kontatzeko modukoa ere badela iruditzen zait.

Haritz landaketa egiteko, lehenik ezkurra bildu zuten herrian, haritz hobereenen hazia. Gero Diputazioaren bitartez Madrilera eraman eta handik tratamendu berezi bat emateko Holandara igorri omen zituzten ezkur aleak. Holandan ezkurrak tratatu eta atzera, bide beretik

Orokietaraino. Hemen erein zituzten prest-presta zuten lur zatian. Ibilaldi luzea bildutako ezkurrena.

Ez Nafarroan eta ez Espainia guztian ez izaki trebetasunik hazia tratatzeko. Esan duguna, harrigarria!

Klima aldaketa ote?

Errepidetik begira Anotzibarko mendian ikusi nuen pagadian gaitza. Arbola multzo bat iharturik. Orain urte pare bat izanen zen. Eta garai berean, Leazkuen ere gauza bera ikusi nuen, pagadian gaitza. Etxaidekin egiten duen mugan arbola multzo bat iharturik.

Zer gaitz ote dute pago horiek? Ez dut deus aditu, ez dut deus irakurri. Orain urte batzuk, asko samar, Muskitzen gertatu zen pagadian gaitza. Orduan badakit begira ibili zirela Diputaziokoak. Ez zuten deus topatu. Ez zuten aski aztertu.

Iruñean ere aspaldi samarretik ikusten nituen azeri bateko arbolak, gazte lardenak behar zutenak, zati batean mengeltzen, horitzen, txartzen eta akitzen ari zirela. Ihartu hurren zeuden. San Francisco Elizaren parean ziren horiek. Noizbait ohartu ziren bertako apezten batek “abonatzen” zituela. Hala ere, honek bazuen arrazoi puska, elizako paretan erreliebean ziren eskulturak estaltzen zituzten eta horiek ikustea nahi. Eta artista handi batek egindakoak izanik arrazoi gehiago.

Eta zer egingen udalak eta, gaizki zeuden arbolak bota eta berriak landatu, baina mota berekoak. Oker handia. Urte batzuen buruan berriz ere eskulturak estaliko dituzte.

Gurera etorritik, Oskotzen orain urte batzuk plazan ihartu arazi zituzten herriak jarritako arbolak. Nork egin zuen inork ez daki. Zergatik ere ez. Beste herri batean tarratuloarekin zulatutako hama-bost bat fruta arbola ere ikusia naiz. Ez dut esanzen non. Jabeak erakutsi zizkidan ez amorrazio ttikiz gainera. Azpi-azpitik, zolaren kontra-kontratik zulatuak, gero benenoa bertan jartzeko. Batzuk ihartuak eta beste batzuk ihartu hurren. Txarkeriaz eginak, jakina.

Eta txarkeriaz ez, baina bai gutxi pentsaturik, zenbat arbola zahar ez ditut ikusi gure mendietan motozerra probatzeko edo, deboilaturik? Arbola zaharrei errespetua ere izan beharko genieke bada, zaharrak direlako besterik ez bada ere! Bai to! Bi hanketako burugabe franko izaten da bazterretan. Anotzibartik urruti xamar joan gara. Leazkuetik urrunago. Berriz ere gurera bilduz, nire galdera hau da: zer gaitz da gure pagadietan dabilena? Nik ikusitako bi toki horiez gain izanen baitira gehiago, harrigarria bailitzateke bi tokitan izatea soilik eta horiek nik ikusi izana. Zeren, ez bainaiz ez mendizalea eta ez mendizaina.

Klima aldaketak eragina ote da? Zerbait jakitea gustatuko litzaidake. Eta denoi gustatuko litzaiguke zer den jakitea.

Arrotzak nagusi

Oso ttikia nintzen. Lau bat urte gehienez ere. Eta hitz berri batekin egin nuen topo. Arotzan Migel etxetik atera zen eta ni hurbilean nengoen, plazapean, eta esan zidan etxean arrotzak zituztela. Ez nuen inoiz entzuna arrotza hitza. Hala ere berehala ulertu nion. Arrotzak, ahaideak ez ziren batzuk zituztela etxean, herrikoak ez zirenak gainera.



Iruñean, Baiona etorbidea edo avenida. 1800. urtea artio Iruñea erabat euskalduna zen, arrotzak zirenak ezik: funtzionario, militar eta horrelakoak. Geroztik...

Izugarri gustatu zitzaidan hitza eta arroza alea ere bururatu zitzaidala gogoan dut, baina ez zutela elkarrekin deus ikustekorik. Izugarri gustatu zitzaidan hitza eta geroztik beti gogoan izan dut.

Beste kontu bat ere ulertu nion “Arrotzak ttugu itxan” esan zidanean, bazuela jostaketarako beta, astia, arrotzak joan artio behintzat libre ginela, ez zuela etxekoez kezkatu behar, hauek arrotzekin beharko zutelako. Arrotzekin bete beharko zutela eta gu libre ginela nahi genuena egiteko, behar ez den bat ere bai.

Geroztik, mutiko kozkortzean aitari ikasi nion etxean ostatzuz izaten zirenak ere arrotzak zirela; honek aurretik Migelekin ikasitako esanahia pixka bat hedatzen zuen. Baina, inportanteagoa zena, arrotzu aditza ikasi nion edo ikasiz joan nintzen. Adibidez, norbaiti gurekin izan duen adiskidantza edo, hoztu, atzendu, gibelatu zaionean, arrotzu dela esanen dugu, gurekin arrotzu.

Eta oraindik geroxeago aitari berari ikasi nion arrotzu aditzak beste esan nahi bat ere bazuela. Etxera etorri zen bere adiskide bat, hasieran euskaraz aritu ziren, zerbait, baina arrotza laster pasa zen erdaraz mintzatzerara. Gero, alde egin zuenean, aitak esan zidan euskara arrotzua zuela, alegia, gizon arrotzak gure hizkuntza arrotzua zuela, baldartua.

Jakina, ez erabiltzean hizkuntza bat arrotzu egiten zaigu. Urte luzez aitzorik ez aritzean, arrotzu egiten gara, arrotza zaigu aitzorik aritzea, urteetan auto-bolantea hartzen ez badugu, arrotza sentitzen dugu bolantea hartzea. Zenbat aldiz ez ote dut geroztik aditza hau erabili esanahi horrekin? Migelek erakutsi arrotza hitzari arrotzu aditza gehitu eta biribildu dugu ederki hitz honen esanahia. Esanahi gehiago ere baditu, baina hauek dira inportanteenak. Gehiago ikasi nahi duenak, hor ditu hiztegiak.

Arrotza hitzaz ari izan gara. Atzenduxea dugu-l iruditzen zait arrotza hitza bera, baina gehiago arrotzaren izatea. Eta arrotzak etxean hartzen ditugu etxeokak balira bezala. Okerkeriarik handiena, huts egiterik kaltegarriena. Etxeko salan edo sukaldetan sartu zaizkigu arrotzak. Lekuko, hor dugu telebista; arrotza nagusi etxe askotan. Eta gehienetan arrotzetan arrotzena gainera, erdarazko telebista.

Esan dut arrotz hitza dugula atzenduxea baina arrotz izatea? Izatea bai, izatea. Etxeko izatetik arrotz izatera pasa garelako sentimendua sumatzen dut adiskide askorengan. Zahartzen edo arrotzen ari ote gara?

Ur handitan sartzen ari gara eta atzera egin beharko dugu, badaezpada, inor mindu baino lehen. Goazen gurera, eta ardo edateaz arrotzu baino lehen goazen ostatura ea irekia dagoen. Ardo frexkotik baso erdi bat edan behar diagu eta. Eupa! Migel, goazen, goazen arrotzegira!

ALBERTO ETXEBERRIA, ESKUBALOI ENTRENATZAILEA ATARRABIAN ETA LARRAINTZARREN

Eskubaloia nahiko kirol osoa da: erresistentzia eduki behar da, indarra, abiadura...



Laburrean, zein izan da zure ibilbidea eskubaloï entrenatzaile gisa?

Hamasei urte nituelarik hasi nintzen oinarritzko kirolean entrenatzen, tituluak atera nituen arte; nazionala azkena izan zen, horrek maila nazionalan entrenatzeko aukera ematen du. Ordudanik elkarren segidako zazpi denboraldi entrenatzen aritu naiz gizonezko Beti Onak taldea lehen mailan, bi denboraldi Beti Onak gazteen taldea, eta hau da bigarren denboraldia emakumezkoen Zilarrezko Ohore mailan ari naizela.

Baina zu ere jokalaria izan zara Beti Onak taldean, ezta?

Bai, dena etxean geratzen da, perspektiba ezberdinak dira jokalaria eta entrenatzailearena. Niri entrenatzea gustatzen zait, esan dizudan bezala, hamasei urte daramatzat entrenatzen, beti motibatu nau.

Hemen bi talde dauzkazu.

Bai, txikiena bat, sei eta bederatzi urte artean, hogeita hiru neskek eta mutilek osatzen dute; hauek ikasten ari dira, oraindik ez dira lehiatzen. Beste, neskena, haur eta kadete nahasketa da, eta kadete mailan lehiatzen dira. Talde bakarra ateratu dugu ez duelako bi talde ateratzeko ematen. Duela bi urte hasi ziren lehiatzen haur kategorian haur-kimuak izanik, pasa den denboraldian infantil kategorian lehiatu ziren guztiak kategorian berean, eta aurten berriz nahasketa dago, bi urtetan kategoriaz aldatzen delako.

Zer moduz doaz?

Ongi, ongi, zaletasun handia daukate, eta hori



garrantzitsua da. Astean bitan entrenatzen gara; gutxi da lehiari ibiltzeko, baina, tira... Emaitei bakarrik begiratzen badiegu, ez ditugu partidurak irabazten, baina ez dugu horretan atentziorik jarri behar, nahiz eta garrantzitsua izan, jokalaria gehiago motibatzen delako, eta gauzak beste modu batera ikusten dituelako.

Zein dira, zure ustez, eskubaloian jolasteko behar diren baldintzak?

Prestakuntza, alderdi psikologikoa eta taldea izatearen kontzientzia. Eskubaloia nahiko kirol osoa da: erresistentzia eduki behar da, indarra, abiadura... gainera kontaktu kirola da, gogorra alegia, ez rugby bezain gogorra, baina gogorra, bai.

Hemen neskek eskubaloian jolasten dira tradizioz.

Noski, ikusi beharko litzateke zein beste eskaintza dagoen taldean aritzeko. Hemen, suposatzen dut, Atarrabian bezala, taldean entrenatzeko kirol bakarra eskubaloia dela. Eta, gustatu edo ez gustatu, mutilek futbolekin aritzea nahiago dute. Dena den, futbol talde batek hemezortzi bat pertsona behar ditu, eta eskubaloikoak hamabi eta hamalau artean.

Euskara ikastea burutik pasatu zaizu?

Gustatuko litzaidake, baina une honetan ezinezkoa da niretzat. Joan den denboraldian ez nintzen hemen egon arrazoi horrengatik, eta niri pertsonalki ez zait iruditzen baztertzalea izan behar denik, baizik eta kontrakoa. Nire seme alabak euskarazko eremuan daude, baina oraingoz niretzat ezinezkoa da euskara ikastea.

Eusebiorekin lasai ederrean

Hamasei urte baino gehiago daramatza abeltzaintza ekologikoan Eusebio, erabat konbentziturik, lasai, batere estresatu gabe. Hala bizi dira haren behiak ere, lasai, osasuntsu eta batere estresatu gabe.

Ekologikoan lan egiten duzu, nola hartu zenuen erabakia?

Azken aldian gero eta okerrago nenbilen aziendaarekin, bat ez zela jaikitzen, bestea operatu beharra zegoela... gero eta problema gehiago neuzkan. Doneteben, ITGkoen eraikinean, ikastaro bat eman zuten lau egunez, eta egun batez ekologikoaz hitz egin zuten. Ase ninduen, hau da nik behar nuena, pentsatu nuen; nik aditu nahi nuena esaten ari ziren.

Segituan apuntatu nintzen, eta orduz geroztik ez zait damutu, ikastaro hartan azaltzen zutena baino hobeto atera da. Ez da problemarik izaten azien-darekin, bakarren bat tokatzen da, baina segituan sendatzen dira. Aurtengo udaberrian pneumonia izan nuen, behiak hiltzen ari zirela esan zidan al-baiteroak. Behi batek berrogeitik gorako kalentura zuen, beste bat ere hurbil zen, biharamunean etorri zen albaitea, baina ez zuten ezer gehiago behar, behiak sendatuta zeuden.

Ekologikoan lan egiteko zer egin behar da?

Ez da ezer egin behar eta ez dute ezer behar, kanpoan egoten dira, ez dute hotelik behar. Nik ikusten ditut ukuilu handiak, eta zenbat diru sartu behar izan duten ukuilu horietan, porlana alde guztietatik... Porlanak ez du esnerik ematen, porlanean etzanda behiak ez daude gustura, ni porlanean etzaten baina gaizki egoten naiz, behiek ez dute ezer esaten baina gaizki egoten dira.

Behi gutxirekin, esne gutxi; litro gutxi diru gutxiago izango da. Hori segurua, baina ariora gehiago ematen dute

hauek eta problemarik ez daukat, eta jaikitzen naiz eta badakit behiak ia seguru ongi daudela, eta lehenago ez zen horrela.

Prezioak ez daude ongi...

Orain duela hogeita hamar edo berrogei urte beza-la dago prezioa. Behin emakume batek esan zidan behiak ekologikoan esne gutxiago ematen dutela, eta nik zera esan nion, ez, ez dute gutxiago ematen; besteek ematen dute gehiegi, hori da esplotazioa; esne gehiago, bai, baina albaitea gainean egon behar du.

Nola ikusten duzu sektore honen etorkizuna?

Gaizki, oso gaizki. Larreak hutsik daude, hor azien-dak egon beharko luke; baina barnean sartuta dauzkate, kartzelan bezala behiak eta larreak hutsik. Larreak hutsik triste daude. Eta behiak ukuiluan triste. Lehenago herrian etxe guztietan esnetarako behiekin bizi ziren, eta, nik ez dut esaten, baina asko bizi leizkenak, orain granja bakarra dago. Granja asko egin ziren eta asko itxita daude. Horrelako milioiak inbertsioetan eta horrelako diru-laguntzak etorkizunik ez dagoen zerbaiterako. Diru horiek beste aldera egin behar zuten nire ustez.

Ekologikoak badu etorkizunik?

Bai, bai. Nik hogeit eta bost urte banitu orain ez nuke beste aldera pentsatuko, azienda kanpoan oso ongi dabil. Transgenikoa zertarako? Ez dute eta beharrik, eta problema gutxiago. Aziendarendako horrelako hobekuntza bada ez litzateke hobekuntza denondako izango? Zuk autoari sartzen badiozu kutsatutako gasolioa pixka bat, ona sartuta ere izan ditzake problemak baina txarra sartzen badiozu seguru, eta hau motor bat da, autoari begiratzen diogu eta askotan geure buruari ez diogu begiratzen. Nik hala ikusten dut.

IRAIA AMUNDARAIN. ITZULTZAILEA ETA AIZAROSKO BIZILAGUNA

“Ordenagailu bat eta internet ditudan edozein tokitatik egin dezaket lan”



Nolako da zure egunerokotasuna lanari begira?

Jaiki eta haurra haurreskolan dagoenean, ordenagailu parean jartzen naiz, eta itzultzen hasi. Egia esan ez du gorabehera handirik izaten nire egunak. Nire bezero nagusia Gipuzkoako itzulpen-enpresa bat da. Haiek bidaltzen dizkirate testu gehienak. Azken aldian eskoletarako testu-liburuak ari naiz itzultzen. Langile autonomoa naizenez, idazkari, administratibo eta diruzain lanak ere egin behar izaten ditut.

Etxean lan egiten duzu, ze gauza on eta txar ditu honek?

Alde onak asko ditu: nik antolatzen dut nire denbora. Garai batzuetan lan gehiago egin dezaket, eta beste batzuetan, berriz, denbora beste gauza batzuetarako behar izanez gero (familia, etxea, aisialdia...), lan gutxiago egin dezaket, edo egunen bat libre hartu. Gainera edozein unetan egin dezaket atsedeen txiki bat etxeko lanen bat egiteko, bazkaria prestatzeko... Lana, familia eta harreman sozialak uztartzeko erraztasun gehixeago ematen du etxetik lan egiteak. Bestalde, etxean lan egiteak esan nahi du ordenagailu bat eta internet ditudan edozein tokitatik egin dezakelako lan. Horri esker, Brasilen bizi izan nintzen nire bikotekidearekin ia bi urtez, eta handik egiten nuen lan. Esperientzia ederra izan zen.

Txarrak ere baditu, noski. Alde onetan aipatu dudanetako bat, edozein unetan etenune bat egitearena alegia, alde txarra ere bada. Askotan sortzen da egin beharreko beste zerbaite, eta lana galtzen ateratzen da azkenean. Eta, nire ustez, alderik okerrera bakarrik egotearena da, batzuetan isolatu samar gera zaitzezkeelako, baina, batez ere, lankideen laguntzarik ez duzulako. Bulegoan giro ona izanez gero, lankideekin kontsulta ditzakezu zalantzak, haiei buruz eztabaida egin, albokoarengandik ikasi... Bakarrik egonda ezin horrelakorik egin.

Itzultzailea zara, nola dago sektore hori?

Nik uste dut beti martxan dagoen sektore bat dela, eta are gehiago hemen Euskal Herrian, bi hizkuntza ofizial izanda. Pentsa hainbat eta hainbat gauza itzuli behar direla, esparru publikoan zein pribatuan. Normalean edukiak ez dira bi hizkuntzetan sortzen, batean sortu eta bestera itzuli baizik.

Krisialdia nabaritu izan dut zertxobait azken urteotan, baina ez naiz inoiz lanik gabe geratu. Orain lanez lepo nabil berriz.

Etxean lan, Basaburuan lan, gustura horrekin?

Oso gustura. Bi urte pasatxo dira Aizarotzera iritsi ginela. Hemen jaio zen gure semea, eta haur bat hezteko toki aparta iruditzen zait hau: euskalduna, lasaia, naturaz inguratua... Irtsi ginenetik harreman ona izan dugu gainera herriko jendearekin. Behin hemen bizitzea aukeratuta, oso pozik nago bertan (edo bertatik) lan egin dezakedalako, eta autoa hartzen ibili beharrik ez dudalako.

Zerbait gehiago esan nahi?

Interneten kontua aipatu nahi nuke. Ni pribilegiatua naizela iruditzen zait, hemen bizi eta hemen lan egin dezakedalako; baina hori ez da posible Internet zerbitzu on bat izan gabe, eta badakizue arazo larriak ditugula horrekin Aizarotzen (eta Nafarroa osoko landa-eremuetan oro har). Aizaroztik borrokan aritu gara horren inguruan, eta Basaburuko udala ere lanean ari da konponbide bat aurkitzeko.

Horixe azpimarratu nahi nuen; baliteke batzuek pentsatzea Internet ez dela funtsezkoa bizitzeko, baina zerbitzu ona izanez gero, jende gehiagok izango lituzke nik izan ditudan antzeko aukerak, eta enpresa txiki berriak ere sortu ahal izango lirarteke, eta hori ona izango litzateke bailara osoaren-tzat.

ZORIONAK ZUEI!



NAHIA



Boni



BENAT



Gerardo



ITZIAR



ASIER



IOSU, KOLDO ETA TXUMA



IRUNE

Udazkeneko koloreak

Egunak gero eta laburragoak dira, argia intentsitatea galtzen ari da. Zuhaitzek "badakite" negurako prestatu behar dutela, ez dago argi eta ur nahikorik fotosintesia egiteko, beraz, udan bildutako energiarekin bizi beharko dute. Udazkenean elikagai lantegiak itxi egiten dituzte zuhaitzek, hostoetako klorofila desagertzen da, eta poliki-



Hori eta laranja ezkutatuak

Klorofilaren berdearen azpian, udazkeneko lehen koloreek uda osoa itxoin behar izan dute azkenik agerian geratzeko. Klorofila desagertzean hostoek erakusten dizkiguten hori eta laranja kolore hauek xantofila eta karoteno pigmentuetan dute jatorria (klorofilaren egituraren daudenak).

Pigmentu hauek fotosintesian parte hartzen dute, klorofilak bereganatu ezin duen argia xurgatuz, eta gainera funtzio babesle antioxidatzailea dute. Pigmentu arruntak dira, loreetan eta elikagai askotan aurki ditzakegu, adibidez azenario, arrautzen gorringoan edota platanoetan.

Gorri biziak

Kolore gorri, lila eta urdinek antozianin dute jatorria. Pigmentu hauek antioxidatzaile indartsuak dira. Lore, fruitu eta landare askotan daude: zerbak, sagar gorriak, mahatsa, hiazinto, bioletak ... Hosto batzuetan, astigar hostoetan adibidez, pigmentu hauek udazkenean sortzen dira barnean harrapatuta geratu den glukosatik, badirudi honela zertxobait gehiago iraunarazten dituztela hostoek zuhaitzetan.

Pigmentuek hostoak babesten dituzte eguzkitik eta haien izozteko puntua gutxitzen dute, hotzaren aurrean babesa emanez. Hostoek gehiago irauten dute zuhaitzetan eta honela azukreak, nitrogenoa eta beste substantzia baliotsu batzuk hostoak erori aurretik ebakatuak izan daitezke.

Marroi beroak

Marroiak taninotik datoz: zapore mikatza duen hondakin produktu bat da. Taninoak substantzia idorgarriak dira, erruz daude naturan eta ehun begetaletan. Haritz eta gaztainondoen enborraren azalean, adibidez, asko daude, edota sagar, masusta eta ardo beltzean.

Zuhaitz guztiek etengabe berritzen dituzte hostoak, hosto zaharrak askatuz eta berriak sortuz. Hosto iraunkorreko zuhaitzek hosto gehienak kontserbatzen dituzte neguan, eta, tenperaturaren baxuarengatik modu askoz ere mugatuagoan bada ere jarraitzen dute hala edo nola fotosintesia egiten. Zuhaitz hauek benetako santutegiak izaten dira gure txoriendako, haien hostailak eguraldi kaxkarretik babesten baititu.



Udazken oparoa izan dugu baratzetan, naturak borondate handiz bueltatzen digu ongarriz emandakoa. Arrarasko Lizarpe etxekoaren baratzean sortutako azenari lote dotorea



2016eko Urria

Gure alderdian izan ziren jaiotzak ezkontzak eta heriotzak

Jaiotzak

ANUE
OLAGUE
Gartxot Olague Liberal,
Unai eta Oihanaren
semea, 2016ko urriaren
25ean jaioa, *Exkixo-
nean*.
LANTZ
Asier Puy Ziganda,
Xabier eta Maialenen
semea, 2016ko urriaren
2an jaioa.
ULTZAMA
URRITZOLA
Unai Ezkurra Goiene-
txe, Iñaki eta Rakelen
semea, 2016ko urriaren
18an jaioa, *Kortagain*
etxean.
ZENOTZ
Mikel Iraizotz Garritz,
Miguel eta Aitziberren
semea, 2016ko urriaren
7an jaioa *Danboliñeko*
bordan.
*Ongi etorri jaio berriei
eta zorionak beren
gurasoei!*

Ezkontzak

ULTZAMA
LARRAINTZAR
Haritz Arraztoa Gorta-
ri, Iruritakoa, Maitane
Mendibe Gaskue Larra-
intzarkoarekin. Ezkont-
za eguna: 2016ko
urriaren lehena.
Iruritan jarri dira bizit-
zen.
*Mila Zorion, eta anitz
urtez.*

Heriotzak

BASABURUA
Igoa
Eduardo Huarte Altsua,
2016ko urriaren 16an hil
zen. *Karakoetxekoa*.

OROKIETA-OLA
Felix Telletxea Mutu-
berria, 2016ko urriaren
25ean hil zen. *Ramo-
nen* etxeko nagusia.
*Gure oroimenean iza-
ren zarete.*



Tasio, Maddi eta Gartxot



Irati arront kontent Asierren etorrerarekin.



Oier anaiak Unai zuen zai.



Mikel familiarekin.



Felix



Eduardo



Haritz eta Maitane zaldi gainean.

Fontaneria Arriazu
REFORMAS COCINAS Y BAÑOS-CALDERAS LEÑA Y GAS- INSTALACION
DESCALCIFICADORES
FONTANERIA Y CALEFACCIÓN AROZTEGI (ATEZ)
fontaneriaarriazu@gmail.com
Tno. 676 163780
www.fontaneriaarriazu.es

NEUMÁTICOS BETELU

Juan Alonso Ortiz
Taller mugikorra
Pneumatikoen aldaketa
Zulaturako pneumatikoen konponketa

Erdiko karrika, 8A
Alzazotz (Basaburua)

info@neumaticosbetelu.es
646 47 41 66



-Zuk nahi duzun tokira joango gara zure
pneumatikoen konponketa
-Kostu gehigarriarik gabe kontsultatu prezioak
-Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu



629 31 53 32 - 722 766 835

Lizaso

karikolaregoitz@gmail.com

Mantentze-lanak Instalazioak Konponketak
Argi publikoak Proiektuak Aurrekontuak
Boletinak eta Ziuertagiriak

KARIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

DABID ELIZONDO PINTURAK

DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA
TEL.: 678 623866
argapin@hotmail.com

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
fatxadak zaharberritzea
iragazgaizteak (impermeabilizaciones)
kalitatea eta garbitasuna
aurrekontuak konpromisorik gabe



ZIAURRITZ



Zozketa mundiala 2016

Sarien zerrenda
Lista de premios

10

ZERRI GIZEN
CERDOS GORDOS

10

AXURI
CORDEROS

28 bazkari/comidas (inguru honetako ostatuean/en restaurantes de la zona)

24 gazta/quesos (Hemengo gaztagileak/productores de la zona)

30 saskitto

Beste anitz sari

Bertako PRODUKTUAK
Bertako EKOIZLEAK

www.ametza.eus